

Baletaren emanaldia. Kursaal entzutokian, 20.00etan.

Kontzertua

- Rafa Villafaña eta Fuerza Latina-ren emanaldia. Antiguako Kandelaren aretoan, 23.30ean.
- Donostiajazz Blai: Mc Jearas's band-en emanaldia. Egia kultur etxean, 20.00etan.

Burdinezko Zaldia euskaraz

Nosferatu programazioan John Ford zuzendaria "Burdinezko zaldia" emango da Antzoki Zaharrean hilaren 12an, asteazkena. Film mutu honek beren trenbideak Ipar Amerikan zehar zabaltzen ari diren bi enpresen arteko lehia kontatzen du. Filmean Lincoln edo Buffalo Bill bezalako pertsonaia historikoak ageri dira. George O'Brien eta Madge Bellamy dira aktore nagusiak. Filmaren elkarriketak jatorrizko hizkuntz bertsioan pantailaratuko dira, euskaraz azpiztitulatuta. Emanaldia 20.15ean hasiko da.



Bideoaldia Larrotxenen



Datozen egunotan Bideo emanaldiak egingo dira Larrotxene kultur etxean. Hilaren 10etik 12ra bitartean bideo tailerren sortutako lanak pantailaratuko dira. Hilaren 13an, berri, 17 urtetik gorako neska-mutilek

"Bideoa 1" ikastaroan egindakoak izango dira ikusgai. Azkenik, hilaren 14an, 11 eta 16 urte bitarteko gazteek "Kamera atzean" egitasmoan egindako bideo lanak proiektatuko dira. Emanaldiok 20.15ean hasiko dira.

Rhune eta The soul band Kandelan

Astebukaera honetan bi kontzertu emango dira Antiguako Kandelaren aretoan. Hilaren 7an, ostirala, Rhune taldea ariko da. Rhunek, batik bat, musika irlandarra jorrazten du. Bestalde, larunbatean, hilak 8, Zu-



marragako The Soul Band taldeak eskainiko du kontzertua. Emanaldiak 23.30ean hasiko dira.

IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: **943458408**.



erakusketak

• Francisco Leiro-ren brontzeak eta marrazkiak. DV galerian (San Martin 5), ekainaren 16ra arte.

• Udako taldeko erakusketak. Etxeberria galerian (Zubieta 18-20), ekainaren 29ra arte.

• "Mobiliario". Juan Muñozen formatu handiko obra grafikoa. Galeria 16an (Artzain Ona 16), ekainaren amaiera arte.

• Andoni Eubaren pintura lanak. Altxerri tabernan (Erregente Erregina 2), ekaina bukaera arte.

• Mamen Mariaren argazkiak ikusgai. Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartean (San Juan 27), ekainaren 12ra arte.

• Kutxaren 2001-2002ko ikastaroetan egindako artelanen erakusketa. Bulebarreko Kutxa aretoan (Bulebar 1), ekainaren bukaera bitartean.

• "Mi vida, una performance". John Otazuren artelanak. Arteko galerian (Secundino Esnaola 3), uztaillaren 15era arte.